

ORDENANTZA FISKALA, EZKONTZA ZIBILAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

18. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea ezkontza zibilak egiteko zerbitzu publikoa ematea da, Kode Zibila aldatu zuen abenduaren 23ko 35/1994 Legearen babesean.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Ezkontza zibila noiz egin eta une horretan sortzen da ordaintzeko betebeharra. Udal-bulegoetan ezkontza zibila egiteko data eta ordua zehazten dituen udal-agiria dagokion tasa ordaindu eta gero emanen da.

Subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik Ordenantza honetan aurreikusitako zerbitzu publikoa egiten ez bada, ez da itzuliko ordaindutako dirua.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Ordenantza honen xede den zerbitzua eskatzen duten edo haren onuradunak diren pertsonak daude, zergadun gisara, tasa ordaintzera beharturik.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA - TARIFAK.	
- Ezkontza bakoitzeko	101,15 euro